# E.H.ko FEDERAZIOEN ARTEKO BOTE LUZEA TXAPELKETA 2024

# *IZENA EMATEKO ARAUDIA*

## CAMPEONATO DE E.H. DE BOTE LUZEA POR FEDERACIONES 2024

## *NORMATIVA DE INSCRIPCIÓN*

## 1.- PARTICIPACIÓN E INSCRIPCIÓN

Cada entidad territorial decidirá qué pelotaris le representan. Podrán tomar parte todos aquellos que tengan licencia de aficionado con un club del territorio al que representan. Cada Federación tendrá la posibilidad de presentar uno o más equipos.

En el caso de que un pelotari tenga 2 licencias, tendra preferencia el territorio donde esta empadronado. Si dicho pelotari no es elegido por el territorio donde esta empadronado, podra jugar representando a la otra provincia siempre que tenga el permiso del territorio que tiene preferencia.

## 1.- PARTEHARTZAILEAK ETA IZENEMATEA

Lurralde-erakunde bakoitzak erabakiko du zein pilotarik ordezkatuko duen. Ordezkari diren herrialdeko kluben batean afizionatu-baimena duten guztiek hartu ahal izango dute parte. Kategoria eta modalitate bakoitzean talde bate edo gehiago aurkeztu ahal izango dute federazioek.

Pilotari batek 2 lizentzia dituen kasuan, lehentasuna izango du pilotaria erroldatuta dagoen lurraldeak. Aipatutako lurraldeak ez badu pilotaria hautatzen, beste lurraldearekin jokatzeko aukera izango du lehentasuna duen lurraldea baimena ematen badio.

## 2.- INSCRIPCIONES

La inscripción deberá obrar en poder de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi antes de las 12:00h del **26 de Julio de 2024**. Se deberá tramitar esta inscripción a través de la siguiente dirección electrónica;

lehiaketa@euskalpilota.org

## 2.- IZENEMATEAK

Izen-emateak **2024ko Uztailaren 26** 12:00ak baino lehen Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzan egon behar dute. Egin beharreko izenematea ondorengo helbide elektronikoan egin beharko da;

lehiaketa@euskalpilota.org

## 3.-SISTEMA DE COMPETICION Y CLASIFICACION

Atendiendo al numero de inscripciones, la competición se organizará de la siguiente manera:

a) Si hay más de 6 inscripciones: se harán 2 grupos. Se disputará una liga a única vuelta, jugando todos contra todos. Los 2 primeros clasificados de cada grupo disputaran las semifinales. 1A vs 2B y 1B vs 2ª.
b) Si hay entre 3 y 6 inscripciones: se disputará una liga a única

## 3.-LEHIAKETA SISTEMA ETA SAILKAPENA

Izen-emateen arabera lehiaketa honela antolatuko da:

a) 6 izen emate baino gehiago badaude: 2 multzo osatuko dira. Itzuli bakarreko liga fasea jokatuko da. Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalerdia jokatuko dute. 1A vs 2B eta 1B vs 2A
b) 3 eta 6 izen emate artean badaude: Itzuli bakarreko liga fasea jokatuko da. Ligan

vuelta, jugando todos contra todos. El mejor clasificado en liga pasará directamente a la final y el 2º y 3º clasificado jugarán una semifinal a única vuelta.

c) Si hay 2 inscripciones: se jugará directamente la final.
d) Si hay 1 inscripción: no se jugará.

**A) Clasificación para las semifinales y final.**

La clasificación se efectuará concediéndose ***dos (2) puntos por partido ganado, un (1) punto por partido perdido***. ***La incomparecencia, alineación indebida o la no presentación de la licencia o listado homologado junto con un documento oficial (DNI...)*** de cualquier equipo inscrito en su primera ocasión dará la victoria al equipo rival y el equipo que haga la incomparecencia recibirá cero (0) puntos. Una segunda incomparecencia supondrá la eliminación automática de dicho equipo.

Si el empate a puntos se produjese entre dos participantes, este se resolverá según el resultado particular de su enfrentamiento.

Si el empate a puntos se produjese entre más de dos participantes, el orden de puestos en la clasificación se resolverá mediante la aplicación de las siguientes normas, referentes a la fase y modalidad en juego:

a) Por la suma de los puntos obtenidos en los partidos jugados entre ellos, como si los demás no hubieran participado.
b) Por la mayor diferencia de juegos a favor y en contra en los partidos jugados entre ellos.
c) Si persistiera el empate se atenderá a la mayor diferencia de juegos a favor y en contra en todos los encuentros jugados o que debieron jugar.
d) En último término, la clasificación se establecerá teniendo en cuenta el

sailkapen onena izan duenak, zuzenean finala jokatuko du, eta sailkapeneko bigarrenak eta hirugarrenak txanda bakarreko finalerdia jokatuko dute.

c) Bi taldek izena ematen badute: zuzenean finala jokatuko da.
d) Talde bakar batek izena ematen badu: ez da jokatuko.

**A) Finalerdi eta finalerako sailkapena.**

Irabazitako partida bakoitzeko, ***bi (2) puntu emango zaizkio taldeari; eta puntu bakarra (1) galdutako partida bakoitzeko***. Izena emana duen talderen bat ***agertzen ez bada, jokalari-zerrenda zuzena ez bada edo lizentzia edo homologatutako zerrenda edozein agiri ofizialekin (NAN,...) aurkezten ez bada***, partidua aurkariari irabazitzat emango zaio eta ez agertzea egin duen taldeak zero (0) puntu jasoko ditu. Bigarren ez agertzea egitekotan, lehiaketatik kanpo geratuko da talde hori zuzenean.

Puntu berdinketa biren artekoa bada beraien arteko partiduak erabakiko du bakoitzaren ordena.

Puntu-berdinketa bi partehartzaile baino gehiagoren artean gertatzen bada, honako arau hauek erabiliko dira sailkapen-postuak ebazteko (jokoan den faseari eta modalitateari dagozkionak):

a) Haien artean jokatutako partidetan lortutako puntuen batura, besteek parte hartu izan ez balute bezala.
b) Haien artean jokatutako partidetako aldeko eta kontrako jokoen arteko alde handiena.
c) Berdinketa hausten ez bada, jokatu dituzten edo jokatu behar zituzten partida guztietako aldeko eta kontrako

menor promedio de edad que sumen los pelotaris que hubieran representado a cada equipo en todos los partidos disputados.

Las normas anteriores serán tenidas en cuenta por el orden expresado y con carácter eliminatorio, de forma que, si por aplicación de una se resolviera el empate en cuanto a un equipo, se tendrá por hecha la clasificación. Si persistiera el empate con otros equipos para el resto de la clasificación, volverá a comenzarse con los equipos resultantes implicados, por el apartado a), y así sucesivamente.

Las semifinales se disputarán a PARTIDO UNICO y siempre en casa del mejor clasificado.

- **2 grupos**:
  - -1º del GRUPO A vs 2º del GRUPO B
  - -1º del GRUPO B vs 2º del GRUPO A

- **1 grupo (hasta 6 equipos)**

  -1º del GRUPO directo a la FINAL
  -2º y 3º del GRUPO semifinal.

jokoen arteko alde handiena hartuko da kontuan.

d) Azkenean, jokatutako partida guztietan talde bakoitzaren ordezkari izan diren pilotarien batez besteko adin txikiena hartuko da kontuan sailkapenerako.

Aurreko arauei, emandako ordenean egingo zaie arreta, eta ondorengo arau batek aurrekoa ezeztatu ahal izango du; beraz, arau horietako bat aplikatzean berdinketa hausten bada, sailkapena ebatzitzat joko da. Sailkapenaren gainerakoan beste talde batzuekin ere berdinketa badago, berriro ekingo zaio a) arautik, eta horrela dena ebatzi arte.

Finalerdiak PARTIDU BAKARRERA jokatuko dira beti ere lehenbizi sailkatu denaren etxean.

- **2 multzo** badaude:
  - -A MULTZOKO 1.a vs B MULTZOKO 2.a
  - -B MULTZOKO 1.a vs A MULTZOKO 2.a

- **Multzo bakarra (6 talde gehienez)** badago:

  - MULTZOKO lehena zuzenean finalera.
  - MULTZOKO 2. eta 3. ak finalerdia

## 4.- SANCIONES

Si un equipo abandona la competición, los partidos jugados por dicho equipo no se tendrán en cuenta a efectos de clasificación.

Respecto al sistema de competición, en las modalidades y categorías con 4 inscritos y haya una retirada o incomparecencia, el primer clasificado accederá a la final y el segundo y tercer clasificado disputaran la semifinal. En todos los demás casos se utilizará el mismo sistema de competición.

## 5.- JORNADA HÁBIL DE COMPETICIÓN

Se entenderá como jornada válida toda la semana, por facilidades de Calendario, y se intentará jugar en situaciones festivas tales como fiestas patronales o demás festividades.

De cualquier manera, esta circunstancia se comunicará de manera obligada a la Federación de Euskadi en un plazo mínimo de 72h antes de la disputa del festival mediante escrito vía fax o e-mail.

La federación o entidad deportiva que juegue en su territorio decidirá la hora de los partidos.

Las fechas, horarios y sedes de los enfrentamientos deberán obrar en poder de la Federación de Euskadi de Pelota Vasca, como fecha tope, el viernes de la semana anterior a la disputa de la jornada en cuestión, antes de las 12:00 horas. Una vez dados los datos de la jornada no habrá posibilidad de variación.

## 6.- ACTAS

## 4.- ZIGORRAK

Erretiroak edo ez agertzeak dauden kasuetan, talde horrek jokatutako partidu guztiak baliogabetzat joko dira,

Lehiaketa sistemari dagokionez, 4 parte hartzaile dauden kasuetan, erretiratzen edo ez agertzen bat badago 1. sailkatua finalera sailkatuko da zuzenean eta 2. eta 3. sailkatuek finalerdia jokatuko dute. Beste kasu guztietan lehengo txapelketa sistema bera erabiliko da.

## 5.- TXAPELKETAKO JARDUNALDIA

Aste guztia izango da jardunaldi baliagarria, Egutegi erraztasuna bitarteko, herriko jaiak aprobetxatuz, hauetako egitarauetan sartzen ahaleginduz.

Dena dela, egoera horren berri Euskadiko Federakuntzari emango zaio gutxienez partida jokatu baino 72 ordu lehenago, fax-bidez edo e-mailez horren gaineko idatzia bidalita.

Bere lurraldean jokatzen duen federazioak edo kirol-erakundeak erabakiko du partiden ordutegia.

Euskal Pilota Federakuntzak partiduen egunaren, ordutegiaren eta egoitzen berri, gutxienez, partida jokatu behar den aurreko asteko ostiralean jakin beharko du, eguerdiko 12:00ak aurretik. Datu hauek emanikoan ezingo da aldaketarik egin.

De cada partido se levantará por triplicado (entregándose una copia a los equipos contendientes) un acta realizada en el impreso oficial destinado a tal fin. El acta será redactada por el juez principal, pero los delegados de cada equipo, los cuales deberán presentarse ante el juez antes de cada festival, podrán indicarle al juez principal, que incluya en el apartado de observaciones el texto entrecomillado que suponga la aportación personal del delegado, o que anexe aquellos documentos que estimen oportunos, indicándose en cada caso el origen de las aportaciones.

Lo consignado en el acta como incidencia, reclamación o consideración, tanto por parte del Juez de Centro como de los Delegados tendrá la cualidad de notificación al Comité de Competición y en lo menester como denuncia.

Todas las actas deberán ser enviadas por el Juez Principal a la Federación de Euskadi. Aquellas que incluyan alguna observación, deberán ser enviadas a la Federación de Euskadi, recibiéndolas esta en el plazo de 24h. tras la finalización del partido. Se admitirá el envío por fax o correo electrónico y posterior recepción del original.

Aquellas actas que no incluyan anotación alguna en el apartado de observaciones deberán ser enviadas por el Juez Principal a la Federación de Euskadi, recibiéndolas ésta en el plazo máximo del primer día hábil tras la finalización del partido. El resultado de los partidos incluidos en estas actas deberá ser comunicado por el equipo local a la Federación de Euskadi.

El no cumplir con lo citado en los dos párrafos anteriores, la actuación del juez no será abonada.

Independientemente de lo anteriormente citado en este apartado, la federación que dispute la jornada como local está obligada a enviar una copia del

## 6.- AKTAK

Partida bakoitzaren akta xede horretarako inprimaki ofizialean jasoko da hirukoizki; eta kopia bana emango zaio partida jokatu duen talde bakoitzari. Akta epaile nagusiak idatziko du, baina talde bakoitzaren ordezkariek ere –partida hasi aurretik epailearen aurrera agertu behar dutenek– beren iritzia edo beharrezkoak diren agiriak adierazi ahal izango dizkiote epaileari, eta hark aktako oharren gunean jasoko ditu; gainera, kasuan kasu, ekarpenak nondik datozen adieraziko du.

Aktan gertaera, erreklamazio edo iritzi gisa jasotzen dena (epaileak nahiz ordezkariek eginak), Txapelketa Batzordeari jakinaraziko zaio eta, kasu bada, salaketa jitea ere izango du.

Akta guztiak Euskadiko Federakuntzari bidaliko dizkio epaile nagusiak. Oharren bat dutenak Euskadiko Federakuntzari bidaliko zaizkio, eta horrek partida amaitu eta 24 orduko epearen barruan jaso behar ditu. Lehenik faxez edo posta elektronikoz bidaltzea eta geroago jatorrizkoa jasotzea onartuko da.

Oharrik gabeko aktak Euskadiko Federakuntzara bidaliko ditu epaile nagusiak, eta, beranduenez, partida amaitu eta lehen egun baliodunaren barruan jaso beharko ditu Federakuntzak. Etxean jokatu duen taldeak, bestalde, partiden emaitzak –aktetan jasotakoak– eman beharko dizkio jakitera Euskadiko Federakuntzari.

Atal honetan lehen aipatutakoa alde batera utzita, partida etxeko gisa jokatzen duen federazioak derrigor bidali behar dio akta bat Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzari txapelketaren beraren izapideak arintzeko (emaitza, sailkapen, espediente... jakinaraztea). Jakinarazpen hori jokatutako partidaren hurrengo asteleheneko eguerdia baino lehen bideratu beharko da.

Aurreko bi parrafoetan adierazitakoa ez betetzeak, aktuazio hori ez ordaintzea eratorriko du.

acta a la Federación de Euskadi de Pelota Vasca al objeto de agilizar los trámites propios de la competición (divulg. resultados, clasificaciones, expedientes, ….). Esta notificación deberá ser cursada antes del mediodía del lunes siguiente a la jornada disputada.
Todas las comunicaciones irán dirigidas a la Federación de Pelota Vasca de Euskadi:

Barrio Astola 26, 48220 ABADIÑO Bizkaia
Aptdo 246 48200 DURANGO Bizkaia
Tlf: 94 681 81 08
Movil: 665.764.881
Fax: 94 681 84 71
Correo electrónico:
zuzendaritza@euskalpilota.org y
lehiaketa@euskalpilota.org

## 7.- COMITÉ DE COMPETICION

Todos los incidentes y litigios que pudieran suscitarse serán resueltos por el Comité de Jurisdicción y Competición de la F.P.V.E. Cualquier tipo de incidencia que no se contemple en este reglamento, se regirá siguiendo la reglamentación general de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Todas las Federaciones participantes asumen por el hecho de su participación el contenido del presente Reglamento sometiéndose expresamente (con expresa renuncia a cualquier otro tipo de instancia o jurisdicción) para cualquier tipo de incidencia al Comité de Jurisdicción y Competición de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi que aplicará para la resolución de las controversias la normativa señalada en el párrafo anterior conforme al procedimiento establecido en el Reglamento Disciplinario de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi, a tal efecto la composición del Comité será la siguiente: Presidente Dª Isabel (abogado en

Jakinarazpen guztiak EEPF-ra:

Barrio Astola 26, 48220 ABADIÑO Bizkaia
Aptdo 246 48200 DURANGO Bizkaia
Tfno: 946 818 108
Mugikorra: 665.764.881
Faxa: 94 681 84 71
Helbide elektronikoa:
zuzendaritza@euskalpilota.org eta
lehiaketa@euskalpilota.org

## 7.- TXAPELKETA-BATZORDEA

Sor litezkeen gertakari eta gatazka guztiak EEPFko Txapelketako eta Jurisdikzioko Batzordeak ebatziko ditu. Araudi honetan jasotzen ez diren gertakariak Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren araudi orokorrean xedatutakoaren arabera ebatziko dira.

Federazio partehartzaile guztiek araudi hau onartzen dute txapelketan parte hartzearen ondorio gisa, eta edozelako gertakari dela-eta, espresuki daude Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren Txapelketako eta Jurisdikzioko Batzordearen menpe (berariaz egiten diote uko bestelako erakunde edo jurisdikziori). Batzordeak aurreko paragrafoan adierazitako araudia ezarriko du auziak konpontzeko, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren Diziplinazko Araudian ezarritako prozedurarekin bat, eta honelaxe egongo da Batzordea osatuta: Lehendakaria Isabel Gorostiaga andrea (jarduneko abokatua).

ejercicio). La composición del Comité es expresamente aceptada por todas las Federaciones participantes.

Federazio partehartzaile guztiek onartzen dute berariaz Batzordearen osaera.

**8.- COORDINACIÓN GENERAL**

Teniendo en cuenta que se trata de un Torneo supra-territorial, la coordinación y seguimiento de la actividad corresponderá a la Federación de Pelota Vasca de Euskadi, debiendo establecer ésta, las fórmulas de coordinación con el resto de las Federaciones.

**8.- KOORDINAZIO NAGUSIA**

Lurraldez gaindiko torneoa dela kontuan hartuta, jarduera koordinatzea eta haren segimendua egitea Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren ardura izango da, eta hark eman beharko ditu gainerako federazioekin koordinatzeko formulak.

**9.- MATERIAL y ESPACIO DE JUEGO**

Cada equipo presentara 3 pelotas en cada encuentro, siendo el equipo sacador el que elija con que pelota jugar.

Se buscará una pelota intermedia, siendo la reglamentaria una pelota de blanda y grande de 80 gramos.

La plaza será de 45-60 m de largo y 12-15 m de ancho, pudiendo esta ser algo más pequeña dependiendo de la plaza.

**9.- MATERIALA eta JOKO EREMUA**

Talde bakoitzak 3 pelota aurkeztu ahalko ditu partidu bakoitzean, sakea duen taldeak aukeratuko duelarik zein pilotarekin jokatu.

Erdi bideko pilota bat bilatuko da, araudiak onartutakoa 80 gramoko handia eta goxoa izango delarik.

Plazak 45-60m-ko luzeera eta 12-15m-ko zabalerako neurriak izango ditu.

**10.- CALENDARIO COMPETICIÓN**

El calendario de competición se determinará en función del numero de participantes, siendo la primera jornada durante la primera semana de septiembre.

**10.-LEHIAKETA EGUTEGIA**

Lehiaketa egutegia parte hartzaile kopuruaren arabera zehaztuko da, lehen jardunaldia Iraileko lehen astean izango delarik.

## 11. BOTE LUZEA

Eremu irekian jokatzen da. Bote luzean jokatzeko ez da hormarik behar baina errebote paretak onartuko dira. Zenbat eta zorua gogorragoa eta lauagoa izan hobe, izan ere, horrela pilotak hobeto egingo du punpa. Dena dela, ez da nahitaezkoa, gehienetan airez errestatzen baita; horrela, bada, goroldioz edo belar txikiz estalitako lurzoruan ere joka daiteke.

Eskuarki joko-eremua errektangeluarra izaten da, 45-60 m luze eta 12-15 m zabal. Joko eremuaren muturretan dauden paretak joko eremu kontsideratuko dira errebotatzeko garaian. Botarria joko-eremuaren mutur batean jartzen da (ikus irudia). Botarria ez dagoen kasuetan botilua ere erabili daiteke eta azken aukera moduan sakatzeko gailurik ez dagoenean sake eremu bat markatuko da, 0,5x0,5 metrotako neurriarekin. Joko-eremua bi zatitan banatzen duen zeharkako marra bat markatzen da. Marra hori joko eremuaren distantzia x 0,6 metrotara jarriko da. Esate baterako, joko eremuaren luzera 60 metrotako bada, sake eremua 35 metrotara jarriko da. Sakerako eremua botarriaren eta erdiko marra horren arteko eremua da. Errestoko joko-eremua, ordea, erdiko marra horren eta joko-eremuaren atzealdearen artekoa. Zenbaitetan joko-eremua aldapatsua izaten da; orduan, botarria joko-eremuaren beheko aldean jartzen da. Bestalde, joko-eremu guztiak ez dira erabat errektangeluarrak izaten.




Talde bakoitzean 2 sakatzaile egongo dira eta guztira, 10 jokalari. Talde bakoitzeko sakatzaileak partidua hasi aurretik izendatuak egon beharko dute epaile nagusiaren aurrean. Sakatzaileak joku bakoitza amaitu arte sakatu beharko du eta jokutik jokura txandakatu egin beharko dira. Bestalde sakatzailearen ordez sartzen den jokalariak ere sakatzeko eskubidea izango du.

Partiduan zehar jokalarien aldaketa egiteko aukera egongo da. Gehienez 2 aldaketa egingo dira eta ordezko jokalariak partidua hasi aurretik zehaztuak egon beharko dute epailearen aurrean. Kanpora ateratzen den jokalariak ezingo du berriro jokatzera sartu.

Sakatzaileak pilota eskuaz hartu eta botarrian, botiluan edo sake eremuan egin behar du punpa; ondoren, jaurti egingo du aurkarien joko-eremuan egin dezan punpa. Pilotak joko-eremuko erdiko marra gainditu behar du, eta ezin izango du alboetako mugetatik kanpo egin punpa, ez eta atzealdeko marratik kanpo ere; izan ere, hori gertatuz gero, pilota jaurti duen taldeak falta egin eta kintzea galduko du.

Sakea egin baino lehen aurkarien joko-eremuan, hau da erdiko marratik (sake marra) edo eskasetik (arraia edo xixa jokatzen ari denean) ezin daiteke jokalaririk sartu.

Pilota errestatzera doan jokalariak airez edo lehenengo punpan errestatu behar du pilota, eta, jarraian, sakea egin duen taldearen joko-eremura eramango du. Erresto hori sakeko joko-eremuko beste jokalari batek errestatuko du, eta horrela jarraituko dute harik eta jokalariren batek pilota aurkarien joko-eremura eramatean falta egin arte. Piloteoa airez nahiz lehenengo punpan egin daiteke.

Jokalariren batek jaurtitako pilotak joko-eremuko mugetatik kanpo egiten badu punpa, falta egingo du eta, ondorioz, bere taldeak kintzea galduko du.

Jokalaria airez edo lehenengo punpan jotzen saiatzen denean, pilotak aldi berean gorputzeko bi ataletan jotzen badu, *berjes/piedre* izeneko falta egiten du eta bere taldeak kintzea galtzen du. Gauza bera gertatuko da berak errestatutako pilotak taldekideren bat jotzen badu, bai airez bai lehenengo punpan.

Pilotariren batek joko-eremuaren barruan gelditzen badu pilota, pilota gelditu duen gunean arraia bat markatzen da.

Pilotak joko-eremuko alboko mugak zeharkatzen dituen gunean ere, beti ere, pirritaka badoa eta ez airetik (falta izango litzateke), arraia markatzen da.

Arraiak erdiko marraren alde batean zein bestean egiten dira; edo beste era batera esanda, bi taldeek egin ditzakete.

Arraia kintze “diferitua” da, izan ere, ez da egiten denean zenbatzen; jokatu egingo da eta taldeek joko-eremu aldaketa egiten dutenean zenbatuko da, erdiko marra arraia markatu den tokiraino aldi baterako lekualdatu ondoren. Beraz, irudimenezko marra da eta benetako erdiko marrarekin paraleloa; arraia jokatu ondoren desagertu egiten da. Arraiak jokatzen direnean talde bakoitza bere eremuan, nahi duen tokian jarri ahalko da.

Bi arraia markatuta daudenean aldatuko dute joko-eremua jokalariek, edo, bestela, arraia bakarra dagoenean, baldin eta bi taldeetako batek 40 tanto baditu.

Partidak 9 jokotara jokatuko dira edo 75 minututara. 9 jokoak jokatzen ez badira denbora mugara iritsi direlako, joko gehien egin dituen taldeak irabaziko du. 75 minutuko denbora muga iristean, jokatzen ari den jokoa amaitu arte jarraituko du jokuak. Amaitzean berdinketa dagoen kasuan, azken joko bat jokatuko da garailea nor den erabakitzeko.

Pilotak 80 gramo izango ditu eta gutxienez 60 mm-ko diametroa izango du.

## HOJA INSCRIPCION / IZEN EMATE ORRIA

**FEDERACION / FEDERAZIOA**________________________________________________

| NOMBRE Y APELLIDOS<br>IZEN ABIZENAK | Nº FICHA<br>FITXA ZKA. | D.N.I<br>N.A.N. | FECHA NAC.<br>JAIOTZE DATA |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Inprimaki hau Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzara bidali
Enviar este impreso a la Federación de Pelota Vasca de Euskadi